

ttüpi-ttapa

1994.eko apirilak 21 • 132. zenbakia

Elkarrizketa
Urtetik urtera gehiago dira
nekazalturismo etxeak



LIBURUTEGIAK
HELDUENTZAT ERE BADIRA

EGB BUKATUTA ZER? ORONOZKO

S
A
N
M
A
R
T
I
N



E
S
K
O
L
A

20 URTE ATEAK IDEKI ZITUELA



HOSTELERIA

**FORESTALA
AGROPEKUARIA**

**EUSKARAZ
eta
ERDARAZ**



**MEKANIKA
SOLDADURA**

Hasi: **14 urtetan**. Zona honetan, eskola honek bakarrik "OFIZIOA" EGB egin ondoren (Bi urte)

Praktikak: Lantegi edo Enpresatan

Gure zona honetan, ez dira gehiago bultzatu behar ofizio hauek?

Jantokia - Erresidentzia

Tfnoa eta Faxe: 59 20 06

DATUAK

❖ *Nafarroan eta alderdi honetan batez ere, Joxepi izana da lehendabizikoetatik esperientzia honetan buru belarri sartu dena.*

❖ *Baztanaldeko etxeak biltzen dituen elkartearen buru izana da bi urtez. Gaur egun kargu hori Berako Etxebertzeako Patricia Garridok betetzen du.*

❖ *1994ko Nekazalturismo Etxeen Gidan, 150 etxeren berri ematen da, horietatik 71 Baztan-Bidasoan daudenak eta Leitzaldean bertze bat.*

❖ *Nafarroako Nekazalturismo Etxeak 5 elkartetan antolatua daude gaur egun; Baztan-Bidasoa, Aralar, Erronkari, Orreaga eta Urbasa.*

URTEK URTERA ETXE GEHIAGO DIRA ELKARTERA BILDUTAKOAK, EZTA?

Bai. Iazko uda lehenen 50 inguru ziren eta pixkanaka pixkanaka 71 izatera ailegatu gara, denen artean 502 plaza edo ohatze. Orain bertan badaude batzuk sartzeko esperoan daudenak.

ETA SARTU NAHI DUENAK ZER EGIN BEHAR DU?

Lehenik Nekazalturismo Etxeen federaziora deitu beharko du eta han bertan eginen diote tramitazioaren zati bat eta gainerakoa teknikoek eginen diote (etxearen egoera, ikastaroak...).

NOLA HASI DA SASOI BERRIA?

Eguraldiak batere lagundu ez badu ere, Aste Santuan den dena bete da, beharbada bertze urtetan baino zerbait gehiago. Baztan aldeak gainera badu halako gantxoa eta garbi dagoena zera da: behin etortzen denak geroago ere bueltatzen dela. Etxean bertan ikusi dut hori.

GEHIENAK MADRID ETA BARTZELONA ALDEKOAK?

► *“Baztan aldeak gainera badu halako gantxoa eta garbi dagoena zera da: behin etortzen denak geroago ere bueltatzen dela. Etxean bertan ikusi dut hori”*

Joxepi MIURA:

«Urtetik urtera gehiago dira nekazalturismo etxeak»



Bai, enkuestetan hala agertzen da. Jende gehiena ere han bizi da eta beharbada arazoia hori da. Joan den urtearen hondar aldean nabaritu zen hurbilagoko jendea ere etortzen hasi zela, Donostia eta Bilbo aldekoa.

GUZI HONETAN

ARGITARATU DUZUEN GIDAREN ERAGINA SOMATUKO DA, EZTA?

Bai, bai, dudarik ez. Aunitzek komentatu digute ‘...hain hurbil izaki eta ezagutzen ez!’.

PREZIO ALDETIK ERE NEKAZALTURISMO ETXEEN ESKAIN-TZA KONPETITIBO GERTATUKO DA HOTELEKIN ETA?


Bueno, bertze kontu bat da. Hasi ginelarik Hotelek kompetentzia bezala ikusten zuten gurea bainan

gero mintzatu gara beraiekin eta ikusi dugu hori ez dela horrela, zeren, batak bertzea ekartzen du eta badago jendea denetarako. Bakoitzak bere klienteak ditu.

URTEAREN BURUAN ZENBATSU JENDE PASATZEN DA?

Diferentzia handiak daude etxe bategatik bertzerera eta bailara batetik bertzerera. Baztan eta Erronkari aldean dira arrakastatsuenak eta banaz bertze urtean hiru hilabetez beteak daude.

LIBURUTEGIAK HELDUENTZAT ERE BADIRA, ETA EZ ESKOLAKO UMEENTZAT BAKARRIK



Apirilaren 23an ospatuko da nazioarte mailan Liburuaren Eguna. Holakoetan gauza jakina da, gisa honetako egunak antolatu behar izanak nolabaiteko gabezia agertzen duela eta oraingo honetan irakurtzeko ohitura gizartean behar bezala errotua ez dagoelaren seinale dela urteko egun bat horretarako gordetzea.

TESTUA
JOXEMANUEL IRIGOIEN
ARGAZKIAK
MIREN KARMELE TOLOSA

dena dela eta gauden egoeran gaudela, irakurtzeko ohitura ez da egun batetik bestera hartzen. Hortaz, jendeak irakurtzeko ohitura har dezan, «*luzera begira egin behar da lana, kanpaina ximpleak prestatuz*» liburu-zainek diotenez. Zentzu ho-

rretan promozio kanpainak burutzerakoan, interesgarria da liburutegien eskaintzak ere antolatzen diren bestelako kultur aktibitateetan txertatuak egotea. Adibidez 'kultur-astea' dela edo bertze edozein aitzakirengatik gai zehatz batetaz erakuske-

ta edo hitzaldiren bat antolatzen baldin bada, aldi berean eta elkar hartuta gai horretaz liburutegian dauden materialak ere jendeari eskaintzea komenigarria da. Izan ere «*auniztan jendeak ez daki liburutegietan zer izaten ahal den berari*

interesatuko diona». Argi dago, beraz, liburutegien funtzio sozio-kulturala ulertzeko modu hau berri-sua dela gure inguruan, elkarlana eta koordinazioa eskatzen duen modua baita.

EZ DAGO KOORDINA-ZIORIK IKASTETXEKIN

Liburutegiak gehien erabiltzen dituztenak ikasleak baldin badira ere, gaur egun ez dago apenas inolako loturarik ikastetxeetako irakasle eta liburutegietako arduradunen artean. Egia da ikastetxeetan badituztela euren liburutegiak, baina egia da ere, gehienetan eskutik utziak eta egoera kaxkarrean daudela. Liburuzainek diotenez, «elkarlana ez litzateke utzi beharko bakarrik momentu puntaletarako, eraginkorra izatekotan urte osora hedatu beharko zen».


'BIBLIO-BUSA'

HERRI TTIKIENDAKO

Bertze hainbat zerbitzuekin gertatzen zaien bezala, herri ttikiak ez dute liburutegirik. Gabezi hori moldatzeko 'Biblio-Busa'k eskaintzen ahal dituen posibilitateetaz hitzegin digu Soniak, Elizondoko liburuzainak. Baztango kasuan errate baterako, kontua zera litzateke: Elizondoko liburutegia zabalik dagoen bitartean, autobus batean liburu sorta bat herriz herri ibilaraztea. Malerreka eta bertze eskualdetan ere gauza beretsua egin zitekeen.

LIBURUTEGIAK ETA LIBURUZAINAK

Herri haundienetan daukte liburutegiak (Bera, Doneztebe, Elizondo, Leitza, Lesaka eta Saran). Leitza eta Lesakakoek ez dute telefonorik eta Elizondon, adibidez, bi liburuzain daude. Liburuzainen egoera laborala ez da guzietan berdina ezta laneko ordu kopurua ere. Koordinaziorako dituzten zailtasunetaz kexu daude, saiatzekotan euren kabuz egin beharra daukatelako.



GEHIENBATEAN HORRE-TARAKO ERABILTZEN BADIRA ERE, LIBURUTEGIAK EZ DIRA BAKARRIK ETXKO LANAK EGITEKO LEKUA. LIBURUTEGIETAN HIRU ZATI DESBERDINDU BEHARKO ZIREN: IRATURKETA, ESTUDIOA ETA DIBERTSIO LEKUA.

Haur, gazte eta helduentzat, Liburutegian bada denontzat

Adin guzietako jendearengan irakurtzeko ohitura bultzatzeko baliagarriak izanen direlakoan, liburutegietako arduradunek ideia mordoia jarri dituzte mahai gainean. Promozio kanpaina hauek, teoriarik, koordinatuak beharko zuten izan, baina praktikan hori arras zaila

gertatzen da. «Iruñeko agintariek beti Erribera aldera begiratzen dute, mendialdera sekulan ez» diote Bera, Doneztebe, Elizondo eta Lesakako liburuzainek.

HAURRENTZAT

► Batez ere 7 eta 11 urte bitarteko haurrentzat, aste-ro 'Ipuin orduak'. Ordu ba-

tez liburutegia itxi eta haurrentzako ipuin bat kontatu.

GAZTETXOENTZAT

► Aldizkariak eta egunkariak aztertzeko lan taldeak.

GAZTEENTZAT

► Tertuliak edo mahainguruak. Ortziraletan adibidez eta tematika libreak (sexualitateari buruzko liburu bat komentatzea adibidez).

HELDUENTZAT

► Tertuliak edo mahainguruak. Kezka desberdinak bildu eta beraietaz solasteko baliagarriak izan daitezke.



LESAKA, ELIZONDO, BERA ETA DONEZTEBEKO LIBURUZAINAK.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 5.700 ALE

ARGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXeko PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA.: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

Zuzendaria: Joxemanuel Irijoien. **Publizitatea:** Miren Karmele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Joxemanuel Irijoien. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Kristina Boan, Bittori Telletxea. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban Isasi, Txema Aldabe, Pello Etxegia, Txema Urroz, Patxi Otxandorena, Daniel Martirena, Xabiel Maia, Josune Etxebeste, Pablo Mendiburu, Joseba Iga-abide, Alizia Olaizola, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Marta Iburria, Oskar Txoperena, Alberto Sansiñena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Kristina Boan. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Patxi Lasar, Josetxo Susperregi.

Primategia: Gertu (Oñati). **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian diarazitako erranen eta eritzien erantzukizunik

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Borzizrietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko laguntza jaso du

GAURKOTASUNEKO GAIA

Mendien egoera

Gure lanerako mendi pista gehiago beharko ginuke

Juan Bautista OTEIZA
Diputazioko bonberoa, Arriaiz

Baztan aldeko mendiak ongi mantentzen direla uste dut nik, garai batean baino hobekiago. Lehen mendiak zikinak zeuden, sasiz beteak baina orain arras ongi daude. Onddo biltzen edo pasaiatzen ibiltzeko aunitzez politagoak daude. Halere, nere lanaren ikuspegitik arras mendi pista guti daude, guk toki guzietara pista ailegatzea nahi ginuke, aunitz tokitan suteetatik urrun gelditzen baikara. Pisten kontrario haundienak artzainak izaten dira, ardiak lasai ederrean egoten baitira mendi puntan.

Egia da mendi lanak aktibo ondolik pista gaizki uzten direla, abandonatuak eta afera horretan beti izan da jaleoa. Herriko Etxeek gogorrago jokatu beharko zuten kontratistekin. Suaren aferetan ere gehiago mugitu beharko zuten, mendiak sasi eta oteez garbitzerakoan artzaiari laguntza eskeiniz. Batzuetan, ongi kontrolatua izanez gero, beharrezkoa da sua.

Mendi lanak egiteko gaur egungo pisten erdia nahikoa da

Cleofé GOÑI
Pisten Aurkako Taldea, Donamaria

Alde guzietan pista egiten dira egurren ateratzeko, baina gero ez dira batere zaintzen. Gainera horrenbertze pista ez dira beharrezkoak, erdiarekin nahikoa izanen zen. Batzutan latsaemangarria izaten da mendi batean pista goi eta behe, ezker-eskuin ikustea, mendiak pistaz josiak daude. Pista batetik hamar metrora bertze bat ikusten duzu eta dena lana erretzeko ait-zakiarekin. Adibide gisara, Donamarian polemika haundia dago Belatetik Xarutara egin nahi den pista-rekin. Pista horren lana betetzeko gaur egun eginak dauden bertze bi pista daude, beraz gehiegizkoa da bertze bat egin nahi izatea. Lehengo pista moldatuz eta probetuz egin beharko ziren lan horiek. Udalek pistak egiteko dirulaguntzak eskatzen dituzte, baina ez hauek moldatzeko. Nafarroako Gobernua eta udalen artean hartu behar dute ardura hori eta eginak dauden pistak probetu.

Pistak erabilera ugari dituzte eta gaur egun ordezka ezinak dira

Jesus GARITAZELAIA
Oihantzaina

Berriki irekitako pista ugari daude, gehiegi lur azala zauritu gabe ikusiz lasai paseatzeko. Halere gaizki zainduak daude eta beharbada guttiegi dira gaudu eta oihan probetxamendu egokirako. Horrexegatik gertatzen zaigu hain zaila oihan kudeatzaileoi soluzio egokiak aurkitzea. Nire ustez herrien garapen orekatua errekurso propioetan baliatuz gauzatu beharko da eta hauek probetxatzeko ibilgarriak izan behar.

Gaur egun pista erabilera ugari dituzte eta ordezka ezinak dira, ez dute alternatiba errealistikarik. Kableak garestiegiak dira oihanak ateratzeko eta ezin dira erabili plantazioak egiteko eta suteak itzaltzeko.

Ahaleginak egin behar ditugu pista berrien irekitzea eta daudenen hobetzea turismoarentzat onuragarria izan dadin eta ingurugiroan kalte larriegirik sortu ez dezan. Zaintzea funtsezkoa da, inguruan ongi txertatutako pista polita suertatzen baita.



KOMUNIOAK

Kanpaina berri honetan, eskeintzen dizkizugun oroigarrien artean baduzu non aukeratu.

Hartu ordua:

ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

EGUN HAUNDI BATETARAKO
OROIGARRI ON BAT



KATTU

OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



BOTA BERTSOA

IRAKURLEAK MINTZO

**Liburuaren
eguna****Estitxu AROZENA**

Bortziritako Bertso Eskola
Doinua: Iparragirre abila dela

**Malerrekako
Zerbitzu
Mankomunitate
eta udalei**

Zenbait udaletan (Doneztebe, Zubieta...) Ordezko Zerbitzu Zibilerako Plazak sortzeko asmoz mozioak onartu direla jakinda zuengana jotzen dugu iritzia emateko.

1989an Auzitegi Konstituzioanalak Kontzientzi Eragozpen Legea onetsi zuenean Mugimendu Antimilitaristak Intsumisioari ekin zion.

Lege honen arabera derrigorrezko soldadutzari uko egiten dionak honen ordezkoa den Zerbitzu Zibila bete beharko luke. Mugimendu Antimilitaristak OZZri egindako kritikak hauek dira:

- OZZ Zerbitzu Militarren ORDEZKOA da. Ez du ejertzittoa eta Derrigorrezko Zerbitzu Militarren beharra zalantzan jartzen, justifikatu baizik.
- OZZak soldaduzkak dituen gaitzak biltzen ditu (derrigortasuna, jerarkizazioa, eskubideen murrizketak...).
- Zerbitzu Militarra baino luzeagoa da (13 hilabete).
- OZZak lanpostuen desagertzea dakar. Zenbait la-

netan langileak hartu beharrean inongo eskubide laboralik ez duten objektoreak hartuz.

- Gobernuak OZZ gizar-tearekiko elkartasun bide bezala agertarazi nahi digu. Gure ustez elkartasuna ezin da inoiz derrigorrezkoa izan, bere-be-rea duen ezaugarria, borondatea, galduko baitzuen. Elkartasuna bakoitzaren askatasunean oinarritu behar da.

OHARRA:

Eritzi ezberdinek tokiak izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta ENAaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, ttipi-ttapak bere esku izanen du horretarako eskubidea.


Intsumisioa gizar-tearekiko konpromezua da. Bere helburua ez da bakar batzuk OZZaz edota soldaduzkaz libratzea, askatasunean eta elkartasunean oinarritutako baloreak zabaltzea baizik.

Euskal Herrian intsumisioa gizar-tean zabaldu eta txertatua da. Horren adierazgarri da bere inguruan bildutako atxikimenduak (alderdi politiko, sindikatu, giza erakunde eta abar). Uste dugu OZZ Gobernuaren trikimailua dela intsumisio mugimendu eta Mugimendu Antimilitaristaren helburuak geldiarazteko.

Beraz, hartu duzuen erabakia birplanteatzea eskatzen dizuegu.

Intsumisioa soldadutza eta OZZri!

ZUGARRAMURDI, BAZTAN
BIDASOAKO T. ANTIMILITARISTA



*Apirilaren hogeita biru
badator ospakizuna
inoiz ez baduzu irakurtzen
irakurtzeko duguna
irakurle bazera
ospatzeko aukera
ez abaztu oibartzuna
libururikan gabe pasatu
liburuaren eguna.*

*Ospakizuna aditu eta
harritu aiton amona
erran behar da irakurtzea
beti izan dela ona
baina egia dugu
teoria helburu
entzutea ez da broma
bizitzatikan ikasi behar
liburutan ez dagona.*

MAGNETISTA - NATUROPATA ZURE BEGIAK ZAINTZEN DITU

BISTAREN ERREKUPERAZIOA

- Begi alferak, estrabismoa, kataratak, retinosis, begietako neuritis, begietako infekzioak, konjuntibitis, miopia...

REHABILITAZIOA

- Artrosis, Artritis reumatoidea, bihurturak, lumbalgia, zerbikalgiak, psoriasis, diabetes, azaleko alergiak, zizareak, oinetako izerdiak, birusak, asma, buruko minak, kolesterola, erreuma, prostata

Kontsulta Ordutegia: Arratsaldeko 2etatik 10etara (Ordua eskatu)
San Marcial 7 - 4. - IRUN © (943) 62 30 55





ARGIA

«Ezin gara egon txapelketaren zilbarrera begira».

Bitfor ELIZAGOIEN

Arraiozko bertsolaria

Argia 94-III-31

«Baztan errekan 7 plaza daude soilik laxoaz aritzeko.

Laster ordea, 6 besterik ez dira

geratuko: Donamariako plazan dagoen ezker paretara uralita eta burniz estaliko baitute. Beraz, plaza antzutzuz betirako gal liteke aintzinako joko bitxia».

Juan Ignacio ZULAIKA

Pilotari ohia

Egunkaria 94-III-31

◆ **Bizitzeko zer nahiago, herria edo hiria?**

❖ Nire herria, noski.

◆ **Gustoko duzun janari bat?**

❖ Banabar gorriak gustokoak ditut.

◆ **Telebista, irratia edo liburu bat?**

❖ Irratia musika askorekin.

◆ **Zein da zure ametsa?**

❖ Egunen batean txalet baten jabe izatea.

◆ **Zein da zure amodio platonikoa?**

❖ Asko dauzkat.

◆ **Gustoko duzun kolore bat?**

❖ Txuria.

◆ **Gosaltzeko galletak edo ogia?**

❖ Cola-Cao gailatekin.

◆ **Igandero mezetara joateko ohitura duzu?**

❖ Bai, igandero joaten naiz.

◆ **Herriko lagunak edo kanpotarrak?**

❖ Segun, noiz eta zertarako.

◆ **Zerbait aukeratzekotan zer, diskotekak edo herriko festak?**

❖ Herrian egiten diren festa guztiak gustatzen zaizkit.

◆ **Bizitzeko, gurasoekin edo bakarrik?**

❖ Gurasoekin gustora bizi naiz.



Garbine SAIZAR

Aresoko gaztea



ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

BOTXO ostatua

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

KUTTUNA

Navarro Villoslada 10, 1. esk.

(Gurutzearen plaza)

Tfnoa: 151505

31003 IRUÑEA

Laguntza Psikologiko eta sexologikorako zentroa

- Orientazioa, diagnostikoa eta laguntza psikologikoa.
- Depresioa, antsietatea, larritasunak.
- Beldurrak, fobiak.
- Bikotearen harreman arazoak: krisiak, bereizketak, harreman sexualak.
- Sexualitatearen inguruko arazoak:
 - ✗ Inpotentzia.
 - ✗ Gogo falta.
 - ✗ Harreman mingarriak...

Heziketa sexualerako zentroa

Ikastaroak/Hitzaldiak

Sexualitatea, Heziketa sexuala, Antisorkuntza, HIESa, Menopausia, elkarren arteko harremanak, koedukazioa, berdintasunerako heziketa...

Honako talde hauei zuzenduak:

Emakume taldeak, ikasleak, gazteak, Guraso elkarteak, irakasleak, hirugarren adina

Euskaraz eta erdaraz atenditzen dugu



321 milioikoa izanen da aurtengo udal aurrekontua

Iazkoa baino haundiagoa bada ere, murrizketak egin dira ia sail guztietan korrituak ordaintzeko

KRISTINA BOAN

Martxoaren 28ko Batzar Berezian onartu ziren aurtengo aurrekontuak. Azken urteotako inbertsioek sortu duten egoera ekonomiko kaxkarrak moldatzeko, bi proposamen desberdin aztertu dira. Azkenean, sarrera eta gastuen artean desorekariak ttikiena agertzen zuena onetsi zen.

Hortaz, sail gehientsuak murriztu egin dira. Errate baterako Kulturari 4,2 milioi sartuko dira, iaz baino 250 mila guttiago; urteko bestatan 6,8 milioi, iaz baino 400 mila guttiago.

Inbertsioei dago-kionez, egiazko inbertsiotan 67,2 milioi erabiliko dira: Zalaingo sanamendua egiteko 35,8 milioi; Kiroldegian 7 milioi; plantazioetan 6,2 milioi; pistak eta karrikak moldatzen 6 milioi; Kultur Etxean 3,5.



Euskadiko Eskolarteko Sukaldari Txapelketan garaile suertatu da Iñaki Pikabea beratarra. Prestatu zuten menua arrain zopa, legatza donostiar modura eta eltzaur saltsa izan zen. Sari gisa, hilabete bat pasatuko dute Renon (Nevada) eta bertze 5 egun Parisen.



Zalaingo Etxebertzeako Patriza Garrido dugu Baztan, Bortziriak eta Malerrekako Nekazal-Turismo Etxeen Elkarte buru. Kargu hau bere gain hartu du hurrengo bi urteotarako.

Pello Añorga Ipuin Kontalaria eta liburu erakusketak

Liburuaren Eguna ospatzeko Pello Añorga Ipuin Kontalaria hurbilduko da gure artera apirilaren 27an. Zazpi eta hamaka urte bitarte umeek ipuin saioa

entzungai izanen dute liburutegian arratsaldeko 6,30etan.

Hontaz gain, zenbait dendatan liburu erakusketak egingen dira.

Gure Txokoa Beti Gazte derbya

Apirilaren 24ean jokatu da Gure Txokoa eta Beti Gazteren arteko derbya Matxada futbol zelain. Denboraldi honetan hau izanen dute azkeneko partidua eta dudarik gabe beratarrek irabaziko dute.

ttipi-flash

- ❖ **Automobilaren urteko zerga**
1991ko zerga ordaintzeko azken eguna maiatzaren 31 izanen da Berako Udalak jakinerazi duenez.
- ❖ **Zonako kirol elkartetik kanpo**
Berako udalak orainarte zonako udal guztiak kirol mailan biltzen zituen elkartetik ateratzea erabaki du. Baztango udala da elkarte honen buru.
- ❖ **Laguntza 'Martiko'ri**
Nafarroako Gobernuak 6,35 milioi pezeta eman dizkio inbertsio eta enpleguan laguntzeko.
- ❖ **Nafarroa Oinez ekitaldiak**

Bertsu saioa izanen da apirilaren 24ean Eztegarra Frontoian. Arratsaldeko 6etan 6 bertsolari arituko dira. Apirilaren 30ean Gure Txokoako dantzariak jaialdia eskainiko dute Nafarroa Oinez alde Eztegarra frontoian arratsaldeko 8,30etan.



Errefreskoak, Ura, Ardoak, Likorrak, Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 • BERA



ETXALARKO UDALA

Udal Igerilekuaren mantenimendu, garbitasun eta funtzionamendu zerbitzuen kontratazioa

Modalitatea: a) Kontratazio zuzena, edo
b) Kontratazio laborala.

Eskaera eta proposamenen aurkezpena:
1994ko maiatzaren 11ko arratsaldeko biak arte.

Kontratoen iraupena:
1994ko ekainaren 15etik irailaren 15era.
Baldintzak, udal idazkaritzan eskura daude

Etzalarren, 1994ko apirilaren hamairuan
Alkatea, Miguel M. Irigoien



Arkupe-ko 75 pilotarik parte hartu zuten iaz hainbat txapelketatan

Pilotazale elkarteak 950.000 pezeta inguruko aurrekontua izanendu aurretan

AITOR AROZENA

Arkupe elkartearen asanbladan joan den urteko ekitaldien berri eta aurretan egin nahi direnetaz solastu zen. Iaz elkarteak 75 pilotarik parte hartu zuten txapelketa ezberdinetan. Elkarteak bere aldetik ere zenbait txapelketa antolatu zituen eta bakarren batek zazpigarren edizioa bete zuen.

Aurretan, 950.000 pezeta aurrekontua izanendu du Arkupek, bazkideen kuota eta Herriko Etxearen eta bertze zenbait erakunderen laguntzatik eskuratuko dituenak (228.824 pzta CANek emanen du). Txapelketa gehienetan parte hartuko badu ere, Euskadi-Nafarroa-Errioxako elkarte arteko ligan ez du parte hartuko aurretan, pilotari nahiko ez baitu horretarako.

83 bazkide ditu Arkupek, iaz baino 6 gehiago.



J.E. del RIO

Beti Gazteko talde nagusia denboraldi bikaina burutzen ari da. Lehen postuan dago eta Lesakan urte bat oso-osorik darama galdu gabe. Denboraldi honetan bi berdinketa ezik partidu guztiak irabazi ditu etxean. Igande honetan Berara doaie, Gure Txokoaren kontra jokatzera.

San Fermin Jubilatuko elkarteak Ordiziako feriarra

San Fermin Lesakako Jubilatuko eta pensionisten elkarteak Ordiziako feria bisitatzera joan da asteazken honetan. Bertako merkaturan zegoen barazki eta baserriko produktuetako eskaintza ederra

ikusitako ondortikan Arantzazun meza aditu eta bertako jate-txe batean bazkaldu zuten.

Lesakara, Azkoitia, Azpeitia, Loidi eta Donostiatik barna paseatu ondoren itzuli ziren.

Balneariotara joateko epea 27a bitarte

Nafarroako Gobernuak antolatzen duen balneariotara joateko kanpainara apuntatu nahi duenak (Arnedillo, Zestoa, Fitero eta Panticosako balnearioetara), apirilaren 27a baino lehen eman beharko du izena 635036 telefonoan.

ttipi-flash

❖ Torturaren

aurkako mozioa ez zen onartu PNVren kontrako botoarekin. EA eta HBk mozioaren aldeko botoa eman zuten eta azken hauek, Patrizio Goienetxeren isolamendu egoera denuntziatu zuten. Bertzalde, igande honetan 6 hilabete beteko dira Patrizio eta Iñaki Fagoaga atxilotu zituztela. Hori dela eta, hilabetero bezala, enkartelada konbokatuta da Plaza Zaharrean arratsko 9etan.

❖ Kinto bazkaria

1969, 70 eta 71an jaiotako kintoen bazkaria ospatuko da apirilaren 30ean, larunbata, Irubiden. Koxkila ostatuan apuntatu daiteke apirilaren 29a baino lehen, 1.000 pezeta utziz.

EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

**Frexkuena
zugandik
hurbilago**

Bitirria 67 - Tfnoa: 637264

KOXXKONTA



Sagardotegia zabalik

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA



bitxikeriak • opariak • eskulangintza

IRUBIDE

**OSTATUA
ERRETEGIA**

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

Etxalar

Hiru milioi erabiliko dira baserri-bideak moldatzen

Horietatik bi milioi pezeta Nafarroako Gobernuak emanen ditu

PELLO ETA ALBERTO

Abenduan egingo diren zenbait baserri-azotako bideak hondatu samarrik utzi zituzten. Lurriztederra, Lakain-Apezborro, Larrapil-Sarriku, Orizki eta Urrizokietakoak, xeheki. Oyarzabal apa-jadoreak 3 milioi pezeta jo ditu beharrezkotzat kalteak ordaintzeko. Beraietatik bi milioi Nafarroako Gobernuaren eskutik etorriko dira, hirugarrena berriz Udalarenetik. Lanak Arkaitza enpresak egingen ditu.

Udala

kezkatua azaldu da azken plenoan Bertiz Partzuergoan sartzea dagokion diru kopuruagatik.



Podologoaren zerbitzua inguruko herrietako jubilatuei ere eskeini nahi zaie

Podologoaren zerbitzuaz baliatzen ahalko dira inguruko herrietako jubilatuek. Lehenago ere zenbait

etorri dira, hara nola Arantza eta Igantzik, baina orain eskeintza hori indartu egin nahi du Larra-

burua elkarteak. Dagoeneko Lesakako jubilatuekin solastu dira, Irunera joan behar izaten baitute.

ttipi-flash

- ❖ **Kontsulta etxea** pintatuko dute, lehengo pintura nahiko hondatua dagoela eta.
- ❖ **'Etxalar' izena** emanen diote edari bati. Udalak horretarako baimena onetsi du.
- ❖ **Euskara** ikastaroak antolatu ditu Bortzirietako Euskalategia- IKAK Etxalarko Landagain eskolan, uztailean eta abuztuan.
- ❖ **Herriko Ostatuak** astearte santuan ireki zituen atek. Urtea egin du itxirik, moldaketa lanak burutu arte.
- ❖ **Gimnasia eta sukaldaritza** saioak antolatzen ari da Larraburua elkarteak, bere elkartekideentzat.

XATURET XEA

JATET XEA
 Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

Bixente TABERNA
 argazkilaria
 • Ezkontza, bataio eta komunio
 ERREPORTAIK
 Tfnoa: 630597 • BERA

BEKO ERROTA
 Lore eta landareak
 Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
 LESAKA

ARRANO

OSTATUA
 Legarra - LESAKA

HERRIKO OSTATUA ETXALAR
JATET XEA
 Dagoeneko zabalik dago Etxalarko plazan, ostatu eta jatetxe berria
 © 635290 • ETXALAR

Deñe
 LENTZERIA
 MERTZERIA
 Tfnoa.: 62 75 14
 Beheko Plaza 8, LESAKA

IRUBIDE
 Pentsuak eta Abonoak saltzen ditugu
 Tfnoa: 637127



Hirurteko Plangintzan sartu dira zenbait obra


Heldu den larunbatean izanen da Goizuetara egiten den irtenaldia

OSKAR TXOPERENA

Sartu dira azkenean Nafarroako Gobernuaren Hirurteko Plangintzan (93-95) hasiera batean erre-serban gelditu ziren zenbait obra. Boletinean agertzen denez, hauexek dira onartutakoak: Igantziko Bentan, Bidasoaren ezker aldeko saneamendua (17,4 milioi), ur depositotik herrira arteko kondukzio berria (9,7 milioi) eta ur sarearen zati baten berritzea (3,3 milioi). Ea gauzatzen diren hurrengo urteotan.

Goizuetara mendiz

Aurten larunbatez eginen da Goizuetarako irtenaldia, apiri-



Piszinaren lanak martxa politean antzinerara doazi

Oskar

laren 23an, hain zuzen. Ateratzeko ordua goizeko 8etan paratu dute Biltokikoe eta itzultzeko autobusarena berriz, arratseko 9etan.

Patri Arburua euskara teknikari berria

Patri Arburua izanen da hemendik antzinerara Bortziritako Euskara Mankomunitatearen teknikaria, bera gelditu baitzen lehendabiziko 18 lagunei egindako probetan. Arantzako udaltxean eginen du lan.

ttipi-flash

❖ **Apirilaren** bukaera baino lehenago egon beharko dute Biltokiko juntaren eskuetan egindako 20 taldeen ordezkarien izenak. Beraz, oraindik izendatu ez dituztenak, badakite.

❖ **Ahobatez** onartu zuen udalak euskal preso politikoaren eskubide penitentziario eta penalen errespetuari buruzko mozioa eta intsumisioaren aldekoa.



GOZOTEGI - JAIZONE



Itzea 3, 630786 - BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA


SASKI
OSTATUA
LESAKA



KAXULAK • GOSARIAK • BAZKARIAK
Sukaldaritzarik hobereana xokorik politenean

Gurutze Etxea - Jauregieta auzoa - Tfnoa: 635038

• ETXALAR (NAFARROA) •



ESTHER ATEAK, C.B.

Zarandia 9, ☎ 627584 - LESAKA
☎ (943) 610319 - IRUN

- ➔ Parket flotantea
- ➔ Tarima
- ➔ Kortxoak
- ➔ Ate korrederoak dituzten armarioak
- ➔ Paretan sartzeko armarioak

Arantza

Hamabortz gazte konfirmatu ziren apirilaren 4ean

Bertzalde, Ekaitza elkartean antolatutako mus txapelketaren irabazleak Babe eta Isidoro izan ziren

MARTA ITURRIA

Apirilaren 4ean konfirmazioa izan zen elizan. Hamabortz gazte konfirmatu dira aurten, 1977 eta 1978 urteetan sortutako gazteak hain zuzen.

Bi urtetik behin ospatzen den elizkizun hau beti bezala joan zen. Apeza eta artzapezpiuak ohizko meza eman zuten konfirmaturiko bortz gazteen irakurketaren laguntzaz. Halere, aurten ez zen gotzaia (obispua) etorri eta bere ordeiz Elizondoko artzapezpiua etorri zen. Meza bukatuta gonbitea izan zen arkupeetan eta ondotik Aterpen konfirmatutako gazteek eta gurasoek antolatutako bazkaria izan zen.



Babe eta Isidoro Ekaitza elkarteko mus txapelketaren irabazle

Aspaldixko bukatu zen Ekaitza elkarteko antolatutako mus txapelketa. Liga gisara jokatu zen eta hauek dira lehen lau bikote

sarituak.

Babe eta Isidoro izan ziren irabazle, 35.000 pezetako saria eskuratuz. Bigarrenak Elena eta Marian,

15.000 pezetako sariarekin. Hirugarrenak Balentin eta Julian (10.000 pzta). Laugarren Kamino eta Angel (saria afari bat).

ttipi-flash

❖ Zakurrak

herrian barna libre ikusten baldin bada, Nafarroako Gobernuak bilduko dituela abisua eman du.

❖ Nafarroako

bertsolari txapelketaren finala Lesakan izan zen martxo bukaeran. Amaia Telletxea izan zen herriko ordezkaria eta seigarren postuan sailkatu zen. Joan den urteko hirugarren postutik urruti xamar gelditu bada ere, kontent dago Amaia. Bi urtetan presentatu eta bietan finalera ailegatzeari ez dago gaizki.

ARRATZUBI ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA



ATERPE jatetxea

Tfnoa.: 63 41 79
ARANTZA

GRUPO ZURICH



ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 • © 630763
BERA

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA

SAROBE okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



IRUNGO errepeida - 31780 BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujardadoa' Mazioza
Zahar antzekoa Txapeotua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

Sunbilla

Karrika Nagusiko etxeak moldatzen hasiak dira

Euskal Telebista ongi ikusteko, bertzalde, Askin mendi aldera begiratu behar dute antenek

IXABEL ETA JOSUNE

Errepide generala herriko karrika Nagusitik pasatzen ez denetik, bertako zenbait etxe moldatzen eta txukuntzen hasi dira. Batetik Tresabaitakoak, gero Apezenea (hauek aspalditik zebiltzan balkoiak zarpeatu nahian bainan orain arte ez dute aukerarik izan) eta bertze aldetik, Pepabaitakoak. Hauek eguraldiarekin suerte txarra izan dute, teilatua kendu zutenetik euri aunitz egin baitu.

ETB Askin menditik

Duela aste pare batetik honat, ETB Askin menditik hobeki ikusten da, han jarri baitute errepitidorea.



Kontuak kontu giro ona izan zen gimnasia ikastaroakoen afarian

Hau dela eta, idatzi bat ateri dute ETB ongi ikusteko bertze antena bat mendi horretara begira jartzea komenigarria dela erranez. ETBren kanalak

28an eta 36an daude.

Bertze aldetik, pribatuak ez dira ikusten arazo bat gertatu delako: gure herriak Arantzan jarritako errepitidorea puskatu

egin da azken asteotako trumoi eta tximistekin. Dena den, ahalik eta abudoen konpontzeko asmoa dute eta laister kate guztiak ikusiko dira.

ttipi-flash

❖ **Gimnasia**
ikastaroari bukaera emateko 17 lagun elkartu ziren afari batean Herriko Ostatuan. Hauetatik 3 gizonak ziren, nahiz eta abudo 2 gelditu nahiko 'atakatu' baitzituzten. "Bi emakume baino gehiago den lekuan pakerik ez" zioten gizonak.

❖ **Lapurretak**
Hamabortzeroko kontua dirudi, batzuetan etxeetan, bertzetan haragitegi edo elkartean, ondotik bizikletak ebatsi eta oraingoan Gindal ibiltokian zenbait kotxe ireki eta harrapatu zutena eraman dute.

❖ **Aste Santua**
euritsua eta jendetsua izan da. Prozesioa suspenditu zen eta larunbatean Olaia Gandara eta Sara Salaberria baitaiatu zituzten.

IBARROLA


HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA

Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 **DONEZTEBE**

EPI TELLETXEA

IGELTSEROA

Amezti Berri • Tfnoa: 450749 - 450751
DONEZTEBE



TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin.

Koltxoia aldatzeko aukera berezia aprobetxa ezazu.
1. kalitateko koltxoiak oso prezio interesgarrietan

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**

Jose Ramon Apezetxearen alde herritar guziak

1.200 sinadura bildu dira, fiskalak egindako 18 hilabeteko kartzela zigorra eskariari aurre ginez

Doneztebe

TXEMA ETA KARMELO

Azkeneko epaiketari fiskalak 18 hilabeteko kartzela zigorra eskatu du Doneztebe-ko Banco Centraleko zuzendaria den Jose Ramon Apezetxearentzat. Hori dela eta, herritarrek, udalak eta bankuetxetako zuzendariak bere alde zer bait egin nahian sinadurak biltzeari ekin zieten, 1.200 sinaduratik gora bilduz elizatarian bizpahiru egunehorretarako paratu zen mahaian. Erran daiteke herritar denak sinatu dutela ez baitute uste inolaz ere Jose Ramonek zerikusirik baduenik iazko abuztuan bere banketxean bi lagunek ebasteke egin zuten saiakeran. Lapurreta honetan Luis Reguera doneztebarrak parte hartu zuen bertez lagun batekin batera eta bakoitzarentzat urte beteko kartzel zigorra eskatzen du fiskalak.



Antonio Bereau eta Elvira Andiarenak, bere birbiloben lehen jaunartzearekin ospatu zuten euren ezkontzaren 50. urtemuga

Jose Ramonek eta bere familiak bere aldeko jarrera erakutsi duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete.

❖ **Malerrekako** Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan Doneztebe-ko jendearen 292 eskaera atenditu ziren joan den urtean, gehienak hirugarren adina edo minusbalien inguruko arazoekin. Malerrekan 1264 kasu atenditu ziren.

Arregiren etxean zimizta sartu zen apirilaren 10ean

Arregiren etxean, Oteiza auzoan apirilaren 10eko gauean, izugarrizko ortots eta zimiztak izan ziren gauean alegia, zimizta bat sartu zen sototik behitik goiti eta frigorifikoa, telebista, bideoa eta gainerako tresna automatiko guziak hon-

datu zituen. Sukaldeko bi parera ere markatu zituen eta teilatuan nabari dira berak utzitako seinaleak. Etxeko haurrek zituzten pilazko jostailuak ere martxan paratu ziren, kontuak ateri nolako indarrarekin sartu zen zimizta.

Urrezko ezteiak

Antonio Bereau eta Elvira Andiarenak ezkondu zirela 50. urtemuga bete zuten apirilaren 12an. Bere semeetako batek eman zuen meza eta gero famili osoak bazkaldu zuen. Ospakizuna probetuz, Xanti eta Leire birbiloben lehenbiziko jaunartzea ere egin zen.

Aunitz urtez bikotea.

ttipi-flash

- ❖ **Jubilatu** ostatua eramateko ardura Ixabel Juanikorena, Joxe Rekarte eta euren semeek hartu dute.
- ❖ **Patziku Perurena** idazlearen hitzaldia izanen da liburategian, apirilaren 28an, 7etan.

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S. L.

Egunaren 24 ORDUTAN zure esku gaituzu. ZERBITZU GUZIAK EGITEN DIRA Tfnoa: 637404

URTARO BERRIEN ARROPAK

Zerbitzuen

San Migel auzoa 27, 450883 - DONEZTEBE

SANTAMARIA
Jatetxea

Especialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

Zubietara

Autoen aparkamendua eta ur kontsumoa arautzeko ordenantzak

Everesteko diapositiba emanaldia ostiralean

AINHOA MUTUBERRIA

Udala berriro ere arau edo udal-ordenantza berriak ateratzekotan dabil.

Ordenantza hoietako bat autoak herriko plazan traba egiten dutelako ateriko da eta bestea zubietarrok ur gehiegi gastatzen omen dugulako.

Arazo hauei aurre egiteko asmoa agertu du udalak. Dena dela, gai hauei buruz hitzegin zen apirilaren 11n estalpean.

Everesteko diapositibak

Ortziral arrats honetan, apirilak 22, Everest mendiari buruzko diapositibak erakutsiko dira Herriko Ostatuan. Ema-



Autoen aparkamendua eta ur kontsumoa arautuko ditu udalak Artxiboa

naldiaren ondotik afora izanen da leku berean. Apuntatu nahi duenak, bertara joan dadila lehenagotik izena ematera.

Zakurrak ez dira libre utzi behar

Nafarroako Gobernutik ere, beste herrietara egin duten bezalatsu, abisua eman

dute. Horren arabera zakurrak ez dira libre uzten ahal, bestela, bilduko dituzte.

DONAMARIA

Saneamendua lanak 40 milioitan eginen dira

PELLO ETXEGIA

Donamarian, Artze eta Gazteluko ur saneamendua Goienetxe enpresarendako gelditu da. Artze auzoan, tuberiak eta karriketako losak moldatuko dituzte. Gaztelun berriz, ur zikinen tuberiak. Denetara zazpi eskeintza izan dira eta udalak ateriko 47.194.000 preziotik 40.450.000 pezeta-raino jeitsi zuen Goienetxek. Horrela, lehendik plaza estaltzea hartu bazuen, ur saneamenduekin bolada baterako lana izanen du.

Errota herriko zoziedadeak 4 milioitan atera zuen subastara eta 6 milioi t'erditaraino goratu zuen Pasaiaiko Miguel Angel Beltzak. Bera izanen da jabea.

J.I. MARITORENA LARRALDE igeltseroa

Borda eta baserriak erosten dira
☎ 450977 (arratsoko 8etatik 11etara)
DONEZTEBE

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

BERA ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305




ttipi-ttapa

5.700 harpidedun
20.000 irakurle



OTORDUAK • LOGELAK
Tfnoa: 450793



AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA

Angel Manuel Belio

AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU

DOMIÑENEA Etxea
San Andres karrika, 40 - NARBARTE
☎ 943 - 61 50 55

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak


ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

Zonaldeko talde antimilitarista Ordezko Zerbitzu Zibilaren kontra

“Lanpostuak kentzea eta espainiar ejerzitoaren dinamika jarraitzea” suposatzen du zerbitzu honek taldearen ustez

IBAN ISASI

Malerrekako zenbait udaletan onartu den PSS edo OZZ postuak bertako herri batzuetan (Donezteben adibidez) sortzeko mozioaren aurrean zein pauso jarraituko diren argitzeko bilera burutu zuen Iturenen inguruko Antimilitarista taldeak. Partaidetako batek errandakoaren arabera, “gai honi buruzko desinformazioa izan daiteke mozio hauei baiezta emateko arrazoia”. Talde honek dioenez “ejerzitoaren bukaera intsunioaren bidetik etorriko da”. OZZren aurka daude “lanpostuak kentzea suposatzen duelako eta azken finean, espainiar



Ester Fernandez Casas margolariak bere lanak Iruñean erakusten ditu

T.A.

Ester Fernandez Casas, Lizarran jaio eta Donezteben bizidun margolariaren lan erakusketa burutzen ari da apirilaren 8tik 29ra Iruñeko Pintzel galerian. Erakusketa orduak, goizeko 10etatik 1,30etara eta arratsaldeko 4,30etatik 8etara izanen dira.

Ester Arte Ederretan lizentziatua da

Euskal Herriko Unibertsitatean. Zenbait erakusketa eginak ditu eta liburu eta aldizkari azalak eta ilustrazioak ere bai.

Elkarriren aurkezpena

Ortziral honetan, apirilak 22, arratsaldeko 8etan egingen da Malerrekako elkarriren aurkezpena Doneztebeko zinean. Hizlaria, Bittor Aierdi izanen da.

ejerzitoaren dinamika jarraitzea baita”.

Zonako EA eta HBko zinegotzi eta alkateekin eta LAB eta ELA sindikatu

erdezkariekin Iturenen biltzeko asmoz zegoen apirilaren 12an gaiaz hitz egiteko, baina HBkoak bakarrik agertu ziren.

Sutea Zubieta eta Ituren artean

Ortzegun Santu egunean iluntzerakoan Pixarreneko borda aldetik sua deklaratu zen. Orero aldetik Ituren

aldera pasatu zen. Zubietako jendeak sultzaileei deitu zieten eta goizaldeko 3,30ak arte aritu ziren lanean.

ADUR TABERNA

Pintxoak, kaxuelak eta bokatak

Tfnoa: 610864 • LEITZA

SASKAITZ
fontanería
calefacción

Empresa colaboradora de



Era guztietako instalazioak:

Etxekoak, industrialak...

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

LARRALDEA



SAGARDOTEGIA

Asteartetik ortziralera 8etatik antzineran Larunbat eta jaiegunetan zabalik

© 452121 • LEKAROZ



BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepede nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
- Haritz, gaztain eta gerezi egu retan egindakoak

Goizueta

Herri kirolak eta gaupasa apirilaren 23an

Artzuri taldeak eta zonaldeko HBk antolatuta

ESTEBAN AROZENA

Txapelketa ofiziala hasi aurretik herriko 'Artzuri' sokatira ekipoko mutilek beraien indarrak probatu nahi dituzte, 3 hilabeteotako entrenamenduak nolako fruitua ematen duten jakin nahian. Horretarako, beste 7 taldekin batera lagunarteko jaialdia antolatu dute larunbaterako, eta eskoletako frontoian arratsaldeko 5etatik aurrera, Txantrea, Larraun, Basaburua, Sakana, Areso, Etxarri eta Igeldoko taldeak neurtuko dira goizuetarrekin batera.

Nafarroako 2. mailako txapelketan parte hartuko dute goizuetarrek eta iaz baino as-



Artzuri taldekoek gogor entrenatu dute azken hiru hilabeteotan

koz itxura hobea emango omen dute. Kontutan hartu behar da, iaz lehen denboraldia izan zutela konpetizioan eta hori asko nabaritu zitzaie. 11 mutilek osatzen dute

taldea eta 600 eta 640 kilotako txapelketetan tiratuko dute.

Horretaz gain, gaueko 11,30etan hasiko den gaupasa bat eratu du zonaldeko Herri Batasunak eta

antolatzaileek diotenez bi helburu ditu ekintza honek: "herriarrek eta hurbiltzen diren guztiek ongi igarotzea batetik, eta instituzioetatik jasaten dugun boikot ekono-

ttipi-flash

❖ **Mus eta Truk** txapelketak antolatu dituzten ere Umore Ona elkar-teak. Partidak hasiak dira bi modalitateetan eta sariak ohizkoak dira: trofeoak eta 10.000, 6.000, 4.000 eta 2.000 pezeta lehen postuetan sailkatutako bikoteentzat.

❖ **Lapurretak** hasi dira gure herrian ere, eta azken aste hauetan base-ri batek eta Umore Ona elkar-teak jaso dute "kakoen" bisitatxoa. Kalte gehiegirik egitea ez omen dute lortu, ez baten ez bestean.

mikoari aurre egin ahal izateko baliabideak lortzea bestetik". Txalapartariak, Maixa eta Ixiar trikitilariak eta Haritza taldea izango dira gaupasa honen protagonistak.

Areso

Zaborrontzi urdinak ongi erabili behar dira

Kartoa, papera eta plastiko gogorak botatzeko

JUANA M^o SAIZAR

Hilabete batzuk igaro dira herrian birziklatzeko zaborrontzi urdinak jarri zituztenetik, baina oraindik ez dakigu ziur zertarako diren, herrian zehar ez baita ezagutzera eman nola erabili. Kartoiak, plastiko gogorak, paperak eta tetra brik poteak bertan botatzeko dira. Beraz, erabili itzazu ongi.



Jostungintza ikastaroa bukatu da

Argazkia: Juana Mari

❖ **Erreka** aberatsa dago amuarrari da-gokienez. Jende asko

dabil arrantzan eta amuarrain asko atera dira. Baina oso zikina

daukagu erreka eta denok ahalegina egin behar dugu garbixia-

ttipi-flash

❖ **Bilerak egiten** hasi dira Kultur Eguna maiatzaren 8an antolatzeko. Nafarroako 680 kiloko sokatira txapelketa izanen da ekitaldi nagusia.

❖ **Emakumeen** afaria ospatu zen Larunbat Santuan Pake-Toki elkar-tean, urtero bezala. 20 lagun bildu ziren eta eguraldiari aurre eginez goizeko 4etan herrian zehar kalejira egin zuten.

goa mantentzeko eta zaborra edo ongarririk bertan ez botatzeko.

Leitza

II. Mendi Astea ospatzen ari da egunotan

Ekitaldiei bukaera emateko igande honetan, Leitza-Arantza ibilaldia izanen da

ttipi-flash

❖ **Igerilekuak**
eramateko lehiaketa-
enkantean parte hartu nahi dutenek, proposamenak hilaren 22ko eguerdiko 12ak baino lehenago udal bulegoetan aurkeztu beharko dituzte euren eskaintzak..

❖ **Sufarako**
egurren loteak eta gaitz egurrerako eskariak apirilaren egin behar dira.

❖ **Euskal katekesien**
herriarteko bilera izango da Leitza apirilaren 30ean. Nafarroan katekesia euskaraz ematen duten herri guzietako 800 edo 1000 hauringuru etorriko dira.

JOSEBA AZPIROZ

Arantza ibilaldiarekin bukatuko da Aurrierak eta Kultur Taldeak antolatutako II. Mendi Astea. Irteera goizeko 7etan izango da eta nahi dutenek Arantzako Aterpe jabetxean bazkaldu ahal izango dute 1.500 pezeten truke. Izena Astiz edo Maimur liburudendetan eman behar da eta etortzeko autobusa izango da.

Baina nekatu gabe mendiaz gozatu nahi dutenetakoa bazara badituzu beste aukerak: asteazkenean, hilak 21, arratsaldeko 7,30etan zineman Juanjo San Sebastianek "Eskalada Yosemite" diapositiben emanaldia eta hitzaldia eskeiniko du. Adolfo Madinabeitiak eskeintza bera egingen du ostegunean, ordu berean Trango Torrea (Pakistan eta Salto del Angel (Venezuela) mendien igoerako diapositibekin.



Irabazleak 30.000 pezeta jasoko ditu, 20.000 bigarrenak eta 10.000

Ostiralean berriz, ikusgai egonen da eta rokodromoa, rappela 10,30etan K2 filmea larunbat arratsaldean, eta tirolina plazan.

'Pentsioen etorkizunaz' hitzaldia ostiral honetan

Ostiralean, hilak 22, arratsaldeko 7etan Udaletxeko areto nagusian hitzaldi bat izango da 'Pentsioen etorkizunaz'. Hitzaldia Nafarroako Aurrezki Kutxako tekniko batek emango du eta Iratxe Kontsumi-

tzaileen elkarteak antolatzen du, Kutxaren laguntzaz.

Bestalde, gogoratu Iratxe koek hilabetero bi egunez udal txera etortzen direla kontsumitzaileen arazoei irtenbideak bilatzen saiatzeko.



Iratxe kontsumitzaileen elkarteak antolatu du ostiraleko hitzaldia
Artxibo argazkia



EKIPAL

Komertziorako mobleen fabrika

Kalitate eta prezioaren arteko orekarik hoberena

•••••
• Edozein klasetako komertzioa duzula,
• ekipatzeko behar dituzun mogle guzti guztiak
• guk fabrikatuko dizkizugu
•••••

Lantegia, almazena eta erakusketa:

Bekolanda auzoa • ☎ 514225 • Faxa: 514271 • GOIZUETA





'Once'ren zozketak 50 milioi utzi ditu Baztan-Malerrekaldean

Erratzuko Francisco Etxebertz-ek eta Elizondoko M^a Rosario Etxegoien-ek banatu zuten apirilaren 13ko saria

J. IGARABIDE

Apirilaren 13ko ONCE-ren zozketak 50 milioi pezeta ekarri ditu Baztan-Malerrekaldera. 70.637 zenbakia izan zen saritua eta Erratzuko Francisco Etxebertz eta Elizondoko M^a Rosario Etxegoienek saldu zituzten txartel gehienak. Azken honen aipatu zuenez, "Elizondon 25 milioi banatu dira. Nik gogoratzen dudala Laura Miral, Ana Bayones eta Zugarramurdiko neska batek hartu zituzten txartelak".



M^a Rosario Etxegoienek banatu zuen saria Elizondon

Halere, Francisco Etxebertz-ek bertze herritan ere saltzen duela kontutan hartuz, nahiko banatua egonen omen da saria.



237 zuhaitz landatu zituzten ikastolako haurrek Zuhaitzaren Egunean. Eraberean, irakurle guzietan natura zaintzeko eskaera egiten diete

ttipi-flash

- ❖ **Zirkulazio**
inpuettoa ordaintzeko epea apirilaren 30ean akituko zaie ibilgailuen jabeek. Maiatzaren 2tik 31ra ordainduz gero, %5eko igoera izanen dute. Udalak ia 24 milioi pezeta bilduko ditu zerga honekin.
- ❖ **483.000**
pezetako subentzioa jasoko du udalak 'Zinea ilar-gipean' programa egiteko uztaian.

Oronoz-Mugairiko alkateak hamasei hilabeteotan egindako lanen berri eman du

Florentino Goñi, Oronoz-Mugairiko alkateak, karguan dagoen urte eta lau hilabete hauetan egindako lanen berri eman du idatzi baten bidez. Herriko Ostaturako 'batzar-toki' berria egin zen lehenbiziko, elizako ezkil-dorreko erroju elektriko berria

egin da, kanposantua haunditu da, 30 hilobi berri eginez eta sei herriendako egin den mediku kontsulta berria laister zabalduko da. Lan tikiagoak ere egin dira, bertzeak bertze Mugairitik Oronoz bidean zeuden pareta zahar eroriak berrietik egin, tartean

iturria eraikiz, Zozaiako karrikak ormi-goiztatu eta Ixterriko iturri zaharra berritu da, mendietan egindako plantazioak atzendu gabe.

Aitzinerat ere, bertze zenbait lan egingen dira eta herria batzar-erema deitzeko asmoa azaldu du Florentinok.



Ana Mari Marin

Ana M. Marin margolariaren lanak Londresen

Ana Mari Marin, 62 urteko margolari elizondotarraren lanak ikusgai daude apirilaren 12tik aitzinera Londreseko 'Thompson's Gallery' izeneko erakustokian.

LARRAMENDI • Supergarbiteta Idorrean
Saskaitz plaza 1 (Butano ondoan) • ☎ 45 23 81 • ELIZONDO



Edredoia, alfonbrak, arropak eta larruak, idorrean garbitzen dugu

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

UDABERRIKO MODA

Falda txaketa konjuntua	7.990tik aitzina
Trajeak	12.900tik aitzina
Body-ak	3.950tik aitzina
Txalekoak	2.500tik aitzina
Puntuzko jertseak	5.900tik aitzina
Bermudak	3.990tik aitzina
Mauka luzeko kamisetak	3.600tik aitzina

Bertze bi hildako istripuz Marin zubiaren inguruan

Elizondoko Zahar Etxean berendu eta dantzaldiarekin ospatu zuten egin dituzten txapelketa desberdinen sari banaketa

J. IGARABIDE

Nafarroako errepi-deetan puntu arrisku-tsuena den Almandoz eta Marin zubiaren artean, apirilaren 8an bi holandar hil ziren gidatzen zuten kamioia erreka aldera erortzerakoan. Medikuarri erran zuenez goizaldeko 3ak aldera hil ziren, goizeko 8ak arte inor konturatu ez bazen ere.

Ura Anizko frontoian

Anizko frontoia estalita dago dagoeneko. Halere, ura sartzen da eta herri kirolekoek ezin dute behar bezala entrenatu. Uraren arazoa moldatzeko, batzarrea egin zuten aniztarrek apirilaren 9an.



ZALDUA

Musean Jesus Ugarte eta Miguel Baraibar izan ziren txapeldunak, bigarrenak Juana M^a Muñoz eta Pablo Perez. Briska jokoan bertzalde, Paka Urroz eta M^a Camino Aranburu izan ziren irabazleak eta bigarrenak Sor Luciana eta Lucia Orkoien. 'Seietara' txapeldunak Matilde Valenzuela eta M^a Labaien eta bigarrenak Paka Urroz eta Camino Aranburu.

❖ **Almandozko** gazteek urteroko bazkaria egin zuten Añamendin dagoen elkar-te batean. 30 bat lagun bildu ziren, bertzetan baino gutiago, Bazko eguna baitzen.

❖ **Martxoko Feria** euripean joan zaigu. Jende etaazienda aldetik urtero bezalatsu izan da. Salmentetan aipagarria da Azpilkuetako Bixerneko behiarena (918 kilo).

❖ **Intsumisoe** (zona mailan) elkartasun afaria egin zuten Arizkongo elkarteetan. Afalondoko giroa animatzeko txalaparta, trikitalariak eta Pottokea aritu ziren.

Personaia

Eva Lertxundi Marin zubiko etxekoa

- Zenbat istripu gogoratzen dituzu etxe inguruan?
- Aunitz, hildakoak 8 behinpin gogoratzen ditut.
- Errexa da istripuetan laguntza eskeintzea?
- Gero eta beldur gehiago dut, urduri jartzen naiz. Iruñeko senar eta bortz hilabete haurdun zeraman emaztea hil zirelarik izan zen istripurik okerrena. Azken honetan, kamioi barruan zegoena desegina zegoen eta hori ezin dut ikusi.
- Zer aldatu da Nafarroako Merituaren Domina hartu ondotik?
- Aldatu deus ere, laguntzen segituko dugu, hori bai, debalde paratu ziguten telefonoarekin errexago izanen da.

ERRATZU OKINDEGIA

zure eguneroko ogia
453168 - ERRATZU

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

ARLA ARDOTEGIA

Ardoak eta likorrak
Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66
ELIZONDO

Eskisaroi jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

"San Fco. Javier" Eskualdeko Ikastetxe Publikoa

1991. urtean sortutako ikasle eta bertze maila guztietako berrientzat izen emateko epea zabalik dago Eskaera orriak Eskolako Idazkaritzan har eta bete daitezke goizeko 9 t'erdietatik ordu batetara eta arratsalde 3etatik 5etara. Izen emate epea maiatzaren 6ra bitartean izanen da.

Zentru honek dituen aukerak hauek dira:

- a.- Bi adar (bata euskaraz eta gazteleraz bertzea) 3 urtetik 14 arte.
- b.- Musika eta Gorputz Heziketan espezialistak diren irakasleak.
- c.- Hizkuntza modernoaren sarrera (Frantsesa).
Lehen Hezkuntzako 2. zikloz geroztik.

- d.- Informatika gela ikasleen erabilerarako.
- e.- Psikomotrizitate gela.
- f.- Heziketa berezia behar duten ikasleentzat, irakasle espezializatuak.
- g.- Tailer Gela, behar duten ikasleentzat.



«Gure Irratia»ren aldeko eskea eginen dute herriko gazteek

Bertzalde, gaita ikastaldia larunbatero izaiten da Baigorriko Daniel Crouspeyre erakaslearen eskutik

MIXEL ETA JACQUELINE

«Gure Irratia»ren aldeko ekintza eginen dute Sarako Gazteek. Dirulaguntza haundirik ez du izaten irrati honek eta gainera bere tresnak ebatsi dizkio te berriki. Gazteen erranetan "eske bat eginen dugu etxez etxe bertze herrietan egiten den bezala, Gure Irratiaren laguntzeko".

Gaita ikastaldia

Martxoaren 26an gaita ikastaldi bat iragan da Saran. Daniel Crouspeyre baigorriar gaita joilearen inguruan bildu dira Sara, Ostibarre, Iriburu eta Baigorriko 15 bat ikasle. Bertze bi erakasle jinak ziren



Mus txapelketan aritutakoak sagardotegi batean bildu ziren

laguntzerat.

Karia huntarat azpimarratu nahi ginuke larunbat arratsaldetan izaten dela ikastaldia Saran eta interesatuak herriko ikasleekin harremanetan sartu.

Idazleen Biltzarra iragan da

Bazko astelehenez XI. Idazleen Biltzarra iragan da polikiroldegian. Lehen urteetan 70 idazle bildu baziren, aurtan 120 etorri dira eta hogoi kultur

elkartek parte hartu dute. Egunen zehar 1.500 bat lagun ibili dira. Antolatzaileek, Lauburu elkarte eta Iratzeder poeta omen du dituzte.

Pilota solas


Esku huska:

Junior: buruz buruko, apirilaren 10ean, Lekorneko trinketean, Christophe Mariluz saratar pilotari gazteak Larretxea Zuraidarraren aurka 19-45 galdu du. **Helduak:** Apirilaren 10ean Amotzeko trinketean 'Union Basque' erakundearen finala zen. Pedro Oronoz eta Michel Elizalde (Elordi), saratar bikoteak galdu zuen Miarritzeren aurka 45-50.

Benjamin: Mikel Gerendiain eta Jérôme Bereau senperrak Frantziako txapeldun Urruñari 40-26 irabaziz.



KIWI BAZTAN, S. A.



MINDEGIA eta BULEGOAK:

Sutegia Etxea
31795 LEKAROTZ

☎ (948) 58 11 01

Fax-a: (948) 58 11 01

FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN
ZUZENKO SALMENTA



ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 9131- URDAZUBI

- ✿ Jardinak apaintzeko landareak
- ✿ Tenporadako landareak (hiedrak, jeranioak, petuniak...)
- ✿ Marokkoko artisau lanak
- ✿ Koroiak
- ✿ Komunitotarako erregaloak
- ✿ Ezkontzarako apaingarriak



LOREDENDA • GARDEN CENTER

MERKEALDIK jardinetako osagarrietan

Aritzondo (Bergara Auzoan) • Tfnoa: 580971 • ARIZKUN
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • NARBARTE



IÑAKI ITURRIA

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Instalazio zaharren berritzeak

PORTERO AUTOMATIKOAK

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Jauregieta 12
☎ 635028 - 635246
31760 ETXALAR

Curtidores 5 - 1. ezk.
☎ (943) 61 24 24
20300 IRUN

Urdazubi

Dantxarineako zubia zabaltzeko proiektua aldatzea onartu da

Bertzalde, apirilaren lehenetik Landibar auzoan ere zaborra biltzen hasiak dira bideak moldatu ondotik

ALIZIA OLAIZOLA

Nafarroako Gobernuak Dantxarineako zubia zabaltzeko 1989tik duen proiektua aldatzea onartu du. Proiektu berria 'V.S. Ingenieria y Urbanismo, S.L.' enpresak egin beharko du bi hilabetetan 1,3 milioi pezetaren truke. Egitura berriak 18 metroko zabalera izan du, 3 metroko lau karrilekin eta metro t'erdiko bi espaloiekin.

❖ 1944-46 bitarte jaioetakoen kinto besta 17an ospatu zen. Afalondoan dantzaldia



Kinto besten aldia izanez, 1972an jaiotako herriko gazteek eta bertze batzuk ere Baztanen ospatu zuten

izan zuten Orabideko Joxe Angelekin.

❖ Gaupasa antolatzen da maiatzaren

28rako, plazan, Joxe-lu anaiak taldearekin.



Zaborra biltzen hasi dira Landibarren

1990eko irailean Senpereko elkarte bat hasi zen Urdazubiko zaborrak biltzen. Iribere, Landibar eta Larrainta auzoak gelditzen ziren zaborrak bildu gabe, bide txarrak zirelako. Joan den urtean berritu ziren bideak eta hasi ziren zaborrak biltzen Iribere eta Larraintan, eta Landibarren aurretik hasi dira apirilaren lehenetik.

METS

Tfnoak: 630537 • 631443 - BERA

BADUZU NON AUKERATU



EZKONTZAK

Jose M^a Retegi Beloki eta **Rosa Isabel Altugarai Galarregi**, Eratsun eta Elizondokoa, martxoaren 26an.

Francisco Braulio Prieto Rodriguez eta **M^a Jose del Puerto Bertiz**, Murcia eta Berakoa, martxoaren 26an.

Juan Antonio Gillenea Dendarie-ta eta **M^a del Coro Iriarte Zubieta**, Iruñea eta Berakoa, apirilaren 9an.

JAIOTZAK

Iñaki Oskoz Vera, Almandozkoa, martxoaren 20an.

Igor Goienetxe Urrutia, Amaiurkoa, apirilaren 4ean.

M^a Fuencisla Errandonea Ville-gas, Berakoa, martxoaren 8an.

Jokin Etxegarai Elgorriaga, Be-rakoa, martxoaren 7an.

Jaione Inda Zarranz, Doneztebe-koa, martxoaren 6an.

Jon Sein Osinaga, Doneztebekoa, martxoaren 20an.

Beñat Leiza Garrido, Doneztebe-koa, apirilaren 2an.

HERIOTZAK

Nikasio Oteiza Mikeo, Legasakoa, apirilaren 5ean, 78 urte.

Pedro Gonzalez Lopez, Elizondo-koa, martxoaren 25ean, 72 urte.

M^a Gracia Alkasena Elizetxe, Eli-zondokoa, martxoaren 25ean, 68 urte.

Jose Gabriel Etulain Urrutia, Anizkoa, martxoaren 29an, 60 urte.

Bautista Tapia Irazoki, Le-sakakoa, martxoaren 29an, 55 urte.

Inazio Guilsou, Sarakoa, apirilaren 4ean, 82 urte.

Marie Jeanne Garate Iturria, Sa-rakoa, martxoaren 26an, 87 urte.

Antonia Aranbillet Ibarra, Be-rakoa, martxoaren 30ean, 86 urte.

Nicomedes Etxeberria Indaburu, Berakoa, apirilaren 5ean, 85 urte.

Alfonso Goienetxe Olagarai, Zu-garramurdikoa, apirilaren 6an, 90 urte.

BENOLA




**ARMAIRU ETA BARRUEN
PROIEKTU ETA DISEINUA**

**ESPEZIALISTAK GARA
ARMAIRU ENPOTRATUETAN**

Berrotaran, 7 • IRUN

Tel. 62 42 80



BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta Urgentziak088/061

Osasun Zentruak

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe 450300

Lesaka.....637428 / 637336

Leitza510248 / 510573

Nafarroako Ospitaleak

Nafarroako ospitalea ... 102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino erresidentzia109400

Gurutze Gorria226404

Gipuzkoako Ospitaleak

Irungo ospitalea614600

Gipuzkoako ospitala ...460299

Erresidentzia453800

Anbulatorioak

Irún630264/621106

Anbulantziak

Oitz450242/450342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Doneztebe637404

Elizondo580924

Lesaka.....637404

Suhiltzaileak

Oronotz-Mugaire592255

Garraioak

Bidasotarra631150

Baztanesa580129

Leitzaran515018

Aberiak:

Iberduero450335/450336



'Produktu turistikoaren analisisia' izeneko Europako seminarioa burutu zen apirilaren 14tik 16ra Bertizen. Aurkezpenean Nafarroako Gobernuak Joaquín Labiano, Baptiste Lanaspèze, nekazal turismoan aditua eta Jose M^a Aierdi Cederna-Garalureko lehendakaria izan ziren.

Gizarte Zerbitzuek positibotzat baloratzen dute iaz egindako lana

Baztan, Bortziriak, Malerreka eta Leitzaaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek iaz egindako lanari buruzko balantzea eman dute ezagutzera.

BAZTANALDEA

Hiru programa dituzte martxan (Orokorra, Etxez-etxekoa eta Ludotekarena). Guzien artean 14,1 milioi pezeta inbertitu ziren eta aurtengo aurrekontua milioi bat gehiagokoa da. Zatiarik haundiena Etxez Etxeko programan joaten da.

BORTZIRIAK

Bi programa gara-

tzen dituzte. Orokorrean 821 pertsonarekin lan egin dute eta etxez etxeko programan 29 pertsona atenditu dituzte.

LEITZALDEA

Programa orokorrean 400 bat pertsona izan dira atendituak eta etxez etxeko zerbitzuan 32. Okile ezinduen tailerraren gizarteratze lana ere aipagarria da, 8 pertsona joaten dira tailer honetara.

MALERREKA

Programa orokorrean 1.264 pertsona atenditu dituzte eta etxez etxeko zerbitzuan 25



Nafarroako mendi eta oihanak babesteko motordun ibilgailuen ibilerak erregulatu dira (auto, moto, 4x4...). Debekatua dago pista eta oihan bideetatik kanpo ibiltzea. Bi metro zabal ez duten bideetan ibiltzea ere debekatua dute. Seinaleak jarritz, udalek erabakiko dute zein bidetan ibiltzen ahal diren. Isunak jarriko zaizkio Araudi honen kontra jotzen duenari.

TRAFFIC

muñeca de trapo

GIZONEZKOEN MODA

EMAKUMEZKOEN MODA

BLAK, IRUNgo LUIS MARIANON

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO BIDAIAK

- ✗ HERRIAK
- ✗ MENDIAK
- ✗ TURISMOA
- ✗ TREKING eta BIDAIA ALTERNATIBOAK

BIDAIA AGENTZIA
G.A.T. 2.015

ADUANNA KALEA, 5
☎ 943 - 615177
☎ 943 - 619489
☎ FAX 943 - 619517
20.300 IRUEN

Sicesal-Beti Gazte txirrindulari taldeak denboraldi berria hasi du

Eskualdeko lehen eta bigarren mailako txirrindulari afizionatuak biltzen ditu

AITOR AROZENA

Eskualdeko eta Gipuzkoa aldeko lehen eta bigarren mailako afizionatuek osatua dagoen Sicesal-Beti Gazte txirrindulari taldeak bere hirugarren denboraldiari ekin dio.

Pabeloi industrialak egiten dituen Irungo enpresa baten laguntza izan arren talde umila da eta Gerardo Telletxea kirol zuzendariak erraten dutenez "dirurik gabe ezin da miraririk egin".

Aurtengoan, Euskaldun eta Lehendakari txapelketetan parte hartuko dute lehenik eta ondoren, Frantzia, Santander, Burgos eta Aragoiko laisterketetan. Bukatzeko, inguruko klasika garrantzi-



Beti Gazte-Sicesal afizionatu mailako txirrindulari taldea

tsuetan parte hartuko dute, hala nola Bidasoa, Nafarroa edo Goierriko itzulietan eta Aragoiko Astean.

Afizionatuen maila da politena Gerardo

Telletxearen ustez. "Jubeniletatik pasatutakoak, kategorian egiten ari diren txirrindulariak eta profesionalak izandakoak nahasten baitira".

Gerardo Telletxea, lehen mailako taldearen zuzendaria: «Jubeniletatik pasatzen diren zonako gazteei bizikletan ibiltzeko aukera eman nahi diegu»

■ Zein da Sicesal taldean egiten duzuen lana?

□ Gure lana jubeniletatik pasatutako mutil gazte guztiei aukera bat ematea da eta batez ere zonalde honetakoei.

■ Eta nola ikusten duzu denboraldia?

□ Nik denboraldia ongi ikusten dut, joan den urteko emaitzak hobetzen ahal ditugu eta hori nahikoa da nerretzat. Urteen poderioz taldea hobetzen ari gara eta hemendik urte batzutura gauza politak eginen ditugu.

■ Eta karrerak irra-



bazi?

□ Afizionatu mailako karrerak irabaztea hagitx garesti dago gaur egun. Bortz talde dauzutenak eta gu bezalako talde tikiak des-

piste baten zai gaude. Hamar lehenbizikoetan sartzen ahal zara, baina irabazi guttik egin dezakete.

■ Ez al zara sobera gaztea zuzendaria izateko?

□ Beno, nik 24 urte ditut baina 17 urtetatik zuzendari gisara ari naiz. Ia nere adina duten txirrindulariak zuzentzen ditut baina ez dago arazorik. Nik titulok baditut eta eurek hori errespetatzen dute eta bertzalde, harremanetarako errexagoa da adin beretsukoa izatea.

1. MAILAKOAK

Koldo Alduntzin
Iñigo Arellano
Fernando Zelaia
Ion Etxeberria
Mikel Insausti
Ismael Mansilla
Jose Maria Martinez
Aitor Mujika
Joseba Ormazabal
Juan Lucas Sansiñena
Iñaki Pagola
Zuz.: Gerardo Telletxea
Mekan.: J.I. Barandiaran

2. MAILAKOAK

Iñaki Anzizar
Aitor Apeztegia
Eriko Aranburu
Gurutx Beristain
Jose Manuel Etayo
J. Ignacio Garmendia
Antonio Garcia
Alberto Garriz
Arkaitz Heras
J. Luis Lajusticia
J. Ignacio Martinez
Marcos Menocal
David Monreal
Roberto Ortigosa
Alberto Palacios
Patxi Vila
Zuz.: Miguel Bajo
Mekan.: Santi Aranburu


Bote prenton

❖ **Euskal Herriko** goma gaineko sokatira txapelketaren finalean parte hartuko dute larunbat honetan, apirilak 23, Amaiur eta Lesakako Beti Gazte taldeak, 560 kilotik behitiko kategorian. Finala Laudiko frontoian izanen da eta 9 talde arituko dira elkarren arteko lehian.

❖ **Bortzirietako** bi futbol talde nagusien arteko derbia jokatu da igande honetan Berako futbol zelaian 5etatik antzinera. Berako Gure Txokoak gibelesko postuetatik aldegin nahiko du eta Lesakako Beti Gazte berriz, momentuz duen lehen postuari eutsi. Goizetik bi taldeetako 'beteranoen' arteko partidua iragarrita dago.

❖ **Mendi irteerak** Berako Larun mendi taldeak apirilaren 24ean Baigorriara eta maiztaren Iean Frainera aterako da.

❖ **Goizuetako** Artzuri herri kirol taldeak antolatuta, sokatira saioa izanen da apirilaren 23an, arratsaldeko 5etatik aurrera Goizuetako eskole-tako frontoian. Bertan Txantrea, Larraun, Basaburua, Sakana, Areso, Etxarri eta Igeldoko taldeak neurtuko dira goizuetarrekin batera.



BAZTAN IKASTOLA

**EUSKARAZ IKASIZ
EUSKARAZ BIZIZ**



ZURE UMEA...

**E
U
S
K
A
L**
...KULTURAN
.....GIROAN
...NORTASUNEAN

... HAZIKO DUGU

BERA eta LESAKAKO IKASTOLAK

Ikasle berrien matrikulatze epea Apirilaren 18tik maiatzaren 6ra



Labiaga Ikastola
☎ 630172



Tantirumairu Ikastola
☎ 637308

ANTZERKIAK

ELIZONDO

► Apirilaren 24ean

Kasino elkartearen, arratseko 8etan kafe-antzerkia: Peter Roberts-en 'Tak Tik' antzeslana.

► Maiatzaren 1ean

Kasino elkartearen, arratseko 8etan kafe-antzerkia: Trapu Zaharrak taldearen 'Tarde de sábado'.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

► **Apirilan.** Arizkunean Rosa Zunzarren margolariaren margo erakusketa.

Z I N E KARTELDEGIA

LEITZA

► Apirilak 15-17.

«Demolition Man». Denboraldiko azken emanaldia. Donezteben ez dago zinerik.

GUARDIAKO BOTIKAK

► Apirilaren 18tik

24ra Etxalar, Doneztebe, Elizondo (J. Iturralde), Leitza eta Goizueta.

► Apirilaren 25etik

maiatzaren 1era Lesaka, Sunbilla, Irurita, Urdazubi, Leitza eta Goizueta.

► Maiatzaren 2tik

8ra Bera, Ituren, Elizondo (Lezaun).

ERREZETA



Zerri solomilo errea laranja erara

Osagaiak


• 2 solomilo (900 gr. inguru) • 4 laranja zukua • Aran paxak • 4 baratzi horts • Perrexila • Armañac kopa erdi bat • piper beltza •

Prestatzeko manera

Bezperatik, solomiloak laranja zukuan jarri behar dira. Prestatzen hasteko labea bero bero jarri behar dugu eta

solomiloak bertan sartu. Mortairu batean baratziuriak, perrexila, piper beltza, koñaka eta gatz lodia tinkatuko dugu, eta erretzen jarri

dugunetik 20 minutu pasatu direnean, guzti hori solomiloet gainetik botako diegu. Bi solomiloen artean aran paxak ere jarriko ditugu eta bertze hamabortz minutuz utziko dugu la-



Xabi URMENETA
Herriko Ostatua
• Etxalar •

bean. Serbitzeko pare bat zentimetroko xerretan ebaki eta jarri plateran patata purearekin eta laranja xerra batekin apaindua. On egin!

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

• **Zerrikumea** (20 kilokoak): 5.350 pzta.
• **Zerri gizona** (95-100): 150 pzta./kilo
• **Zerramak**: 95-100 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

• **Aretze gizenak**:
Idixkoak: Pzta./kg. Kanal
Extra 610
1.koa 590
2.koa 570

Urruxak: Pzta./Kg. Kanal

Extra 625
1.koa 600
2.koa 570
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

• Aretze tikiak

(1.5 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 25.000 eta idixkoak 39.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 42.000 eta idixkoak 52.000 pzta.

• Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 450 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 480 Pzta./Kg. Kanal.

DATU-ITURRIAK: EHNE,

ZUBIRIA MINDEGIAK, KIWI BAZTAN...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza
• **Bertako sagarrondoak** 930.
• **Udareondoak** 930 pta.
• **Bertako aranondoak** 1.050 pta.
• **Gereziondoak** 1.050 pta.
• **Kiwiondoak** 600 pta. (2 urtek.)
• **Fejoaondoak** 1.000 pta. (2 urt.)



❖ BARAZKIAK ❖

• **Piper txorizero** sorta 1.5 pta.
• **Udaberriko aza** 400 pta.
• **Letxuga** zientoa 400 pta.
• **Pepino** sorta 25 pta.

LEGARRA

• PAPERTEGIA • TABAKOAK •
• LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZUAK

⇒ Fax Publikoa
⇒ Enkuadernazioak
⇒ Inprenta lanak • fotokopiak
⇒ **%25eko** deskuentoa diska, kasette eta liburuetan
Legarrea 9, © 637030 - LESAKA



CRISTALERIA VELATE

- Kristaleria orokorrean •
- Barnekaldeen dekorazioa •
- Bainurako mobleak eta manparak •
- Pareta ispiluak •
- Bidriera artistikoak •

Proiektuak eta aurrekontuak, konpromisorik gabe

Villaba Etorbidea 12 - IRUÑEA ☎ 132021

Merkatarien karrika 5 - DONEZTEBE ☎ 450991

Pedro Axular 1 - ELIZONDO ☎ 580825

Errenta deklarazioa egiterakoan kontutan hartu beharreko aholkuak

Iritsi da errenta deklarazioa egiteko garaia. Ondoko lerrotan dituzu, behar bezala egiteko zenbait argibide eta aholku.

- Milioi batetik gorako soldata gordina izanez gero derrigorrezkoa da deklarazioa egitea. Bertzela ere egiten ahal da.

- Komenigarria da agirien originalak eramatea. Bikoteen kasuan, batek originala eta bertzeak fotokopia eraman beharko du.

- Bi modutara egin daiteke deklarazioa: arrunta eta mekanizatua. Arrunta bankuen bidez egiten dena da, bigarrena Hazienda bulegoetan bertan. Mekanizatuan, dirua itzuli behar badizute, 7-10 egunen buruan jasoko duzu. Arrunta eginda berriz, sei hilabetez itxoin beharko duzu.

- Dirua ordaintzea suertatzen bazaizu eta sosik gabe bazaude, zorra kitatzeko atzerapen eskakizuna egin dezakezu. Eskakizuna

onartzea bertze kontuta da.

- Kenkari mota aunitz daude. Bat gaixotasunen kenkaria da. Urtean zehar senda-

gile pribaturen baten (dentista, optikoa...) zerbitzua behar izan baduzu, haren agiria eraman eta % 15a kenduko zaizu.

- Etxean bizi den seme-alaba bakoitzagatik 20.000 pezeta desgrabatzen dira, 30 urtetik behitiko eta langabetua edota



Errenta deklarazioa ongi eginez gero dirua aurrezteko aukera duzu

urtean 819.420 pezeta baino guttiagoko soldata duena bada. Ezindu eta adintuengatik ere badaude kenkariak.

- Langabezia kobratzen dutenak ez dute deklaraziorik egin beharrik.

- Etxea errentan dutenek diru kenketa egiteko eskubidea dute (alokairuaren % 15a).

- Etxebizitza berritzen ari bazara ere gastuen % 15eko kenkaria duzu. Horretarako Nafarroako Gobernuaren agiria beharko duzu.

TEKNIKA ETA KUDEAKETA
INSTITUTUA-ITG

Erredakzioan itzulia

AGENDA EGUNEZ EGUN

BERTSOAK

BERA

► Apirilaren 24ean

Nafarroa Oinez-en egitarauaren barnean eta arratsaldeko 6etatik aitzinera Eztegara Pilotalekuan Sebastian LIZASO, Andoni EGAÑA, Jon SARASUA, Unai ITURRIAGA, Manolo AROZENA, Xabier SILVEIRA eta Iratxe IBARRA. Gai Jartzailea Jon ABRIL.

KONTZERTUAK

SARA

► Apirilaren 30ean

'Su ta Gar' eta 'Tapia eta Leturia' rekin.

► Maiatzaren 7an

HERRI URRATS GAUA. Arratseko Setarik goiti Zizkuitz-Izar txaranga, Xapre Trikitixa, Niko Etxart, Mister Saguak, bertsulariak, Ehun Kilo eta Xinaurri Gorriak. Antolatzaileak Olhain Ikastola eta Sarako Gaztetxea.

MENDI-IBILALDIAK

BERA

► Apirilaren 24ean

Larun Mendi Taldeak Baigorriara ibilaldia burutuko du.

► Maiatzaren 1ean

Larun Mendi Taldeak Frainera ibilaldia burutuko du.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40

Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ✎ Langile Autonomoak
- ✎ Nekazariak eta mendi langileak
- ✎ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratutarako laguntzak
- ✎ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ✎ Diru-laguntza ezberdinak
- ✎ Kontabilitateak
- ✎ IVA eta IRPF
- ✎ Errenta aitopenenak
- ✎ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ✎ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 ora

ETXEBIZITZAK

BERA. Garaje edo lokal bat erosi edo alkilerrean hartuko nuke. ☎ 630557

BERA. Pisua salgai. Kafakzioa eta trasteroa. 10.500.000 pezeta. ☎ (943) 468813 gauez.

BERA. Pisua salgai San Esteban karrikan. ☎ 631393.

LESAKA. 120 m²ko bajera alkilatzeke. ☎ 637404.

LESAKA. 78 m²ko bajera salgai. ☎ 637404.

BORDA erosten dut, ez du inporta pistarik, lur eremurik, argirik edo urik ez badu. Eskura ordaintzen dut. ☎ 306502.

IBILGAILUAK

Nissan Patrol luzea, 6 zilindrokoa salgai. ☎ 510404.

Opel Kadett 1.8 inyección salgai, suplementoak barne. 88an erositia. ☎ 599025.

Seat 600 NA 9985 A salgai. ☎ 635169.

Motoa Rieju MR80, NA-AD matrikulakoa salgai. Egoera oso onean, seguroarekin. Ia erabili gabea. ☎ 630165.

AZIENDAK

Zakurra bi urtekoa, emateko dut. Artzai aleman arrazako mezkla du. ☎ 631486.

Ehizi zakur emea salgai, konejo, erbi eta azeriak hartzeko, Bruno de Jura arrazakoa. ☎ 615040.

Zakurkume bat boxer arrazakoa, 10 hilabete-koa salgai. ☎ 637356.

Collie arrazako zakurra, 5 hilabete-koa salgai. ☎ 599218.

DENETARIK

Akordeioia 120 bajotakoa, egoera onean sal-

gai. ☎ 637158 (Koldo).

Telebista Sony markakoa salgai. 21 pulgadakoa erabili gabea (zozketa baten irabazia). ☎ 627515.

Brotxe bat, familiako orogarria, galdu dut Lesakan, martxoaren 20ko eguerdian. ☎ 637056 edo 637135.

Matrimonio kuarto osoa, berri-berria, 3 urtekoa, salgai. ☎ 580746.

Trikitixa ia berria salgai prezio onean. ☎ 451596.

Betaurrekoak zorro gorri baten barnean aurkitu dira Berako Liburutegian. ☎ 631222.

Mando karroa salgai prezio onean. ☎ 514221.

Trikitixa edo panderoa ikasi nahi baduzu deitu 630421 ora.

Silo bazka bolak enzintatuak Urdazubin salgai. ☎ 599159.

Bideo joko salgai, Master Sistem 2, joku batekin eta gutti erabilia. ☎ 450202 (Iñaki).

Sukalde Kalefaktorea salgai. ☎ 638783.

Betaurrekoak galdu ditut Aste Santuan Donezteben. Aurkitu badituzu deitu mesedez 450812ra.

Betaurrekoak galdu nituen Aste Santuan Donezteben. Aurkitu badituzu deitu 450812ra.

LANA

Perfumeria, apainketa eta kosmetikan ari den frantziar multinazional batek langileak behar ditu. ☎ 510506 (gauean).

20 urteko neska lan egiteko prest. Ileapain-tzailea naiz, informekin. Denda batean edo haurrak zaintzen ere lan eginen nuke. ☎ 637912 (Jaione).

AGURRAK

Leitzako Iraitz Uriarteri bere 15. urtebetetzean. Urte askoz eta ahal duzun gehiena gozatu adin horretan irikitzen hasten den munduan. Etxekoak.

Urdazubiko Jabier L. eta Sara V.ri zorionak zuen urtebetetzean eta muxu haundi bat bere kuadrilaren partetik.

Zigako Kañi eta Tomas: zorionak zuen urtebetetzean (apirilak 4). Peña Triputxin.

Zorionak Jon Telletxea Urrozeri zure 13. urtebetzearengatik. Zure gelako hiru lagun.

Sarako Kittu eta Zugarramurdiko Maite Goienetxeri zorionak zuen urtebetetzean. Zuen lagunak Estephan, Nikolas eta Mattinen partez.

Elizondoko Ana Biartolari, apirilaren 2an 12 urte betetzeagatik zorionak. Urdazubiko lehengusua Alizia, osaba eta izebaren partez.

Kristinarentzat. Zorionak apirilaren 21ean. Ego Amo Te.

Elizondoko M^a Luisarentzat: zorionak zure 22. urtebetetzean apirilaren 8an. Zure lagun bat. J.M.

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,
4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegia bat,
2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,
aseguro etxe bat, ileapaindegia mixto bat, drogeria bat,
bidai agentzia bat, PVCKo nahiz zurezko leiho eta ateak,
hizkuntza akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...**

*Denetarik gauzarik hoberenak.
Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.*

Centro Comercial



**LUIS
MARIANO**
Irun

1993ko ERRENTA AITORPENA

+2

15%


CAJA RURALEan

%

ZURI

5x

**LAGUNTZEKO
GAIUZU**



**NAFARROAKO CAJA RURALEan
ERRENTA AITORPENARAKO DOHAINEKO ZERBITZUA**

Nafarroako Caja Rural-ean, gure zerbitzu eksklusiboa erabil dezakezu
1993ko Errenta eta Ondasunen Aitorpena egiterakoan.

ERRAZAGO

Zure dudak adituen aholku
pertsonalizatuarekin argituko dira eta
Aitorpena eginen dizute

EROSOAGO

Nafarroako Caja Rural-ean zure
Aitorpena tramitatzeaz arduratuko gara
eta kobratzera edo ordaintzera ateratzen
dena zure kontuan helbideratuko dizugu.

AZKARRAGO

Gure ekipo espezializatuak edozein
arazo moldatuko dizu eta zure
Aitorpena modu arin eta eraginkorrean
egitera lagunduko dizugu.
Modu arinenean. Itxaron gabe.

HURBILAGO

Gure 102 bulegoetatik edozein erabiltzen
ahal duzu zure Errenta Aitorpena egiteko.
Zure etxetik oso hurbil.

Zatoz Nafarroako Caja Rural-era. Gure zerbitzuak bistako abantailak ditu.



CAJA RURAL DE NAVARRA

ZURE ERRENTA AITORPENA EGINEN DIZUGU

**PREN
TAN**



BURUHAUSTE BAT KENDUKO DIZUGU GAINETIK

Nafarroako Aurrezki Kutxan, zure errenta aitortpena
modu profesional, azkar eta dohainik
eginen dizugu.

Ken ezazu buruhauste bat gainerik eta zatoz zure
errenta aitortpena egitera **Nafarroako Aurrezki Kutxara**